

AGINTARIAK ETA LANGILEAK

Izendapenak, egoerak eta gorabeherak

DATUAK BABESTEKO EUSKAL AGINTARITZA

1457

EBAZPENA, 2026ko martxoaren 23koa, Datuak Babesteko Euskal Agintaritzaren lehendakariarena, karrerako funtzionarioentzat gordetako lanpostu bat betetzeko 2025eko urriaren 9ko Ebazpenaren bidez deitutako lehiaketa ebazten duena.

Datuak Babesteko Euskal Agintaritzaren lehendakariaren 2025eko ekainaren 19ko Ebazpenaren bidez, lanpostu bat (Informazio Sistemetako Fakultatiboen Goi Mailako Eskala, A1 azpitaldea, 27. Lanpostu Mailako Osagarria) betetzeko deialdia eta oinarriak onartu ziren, eta ebazpen horren bederatzigarren oinarrian ezarritakoaren arabera, balorazio-batzordeak du erreklamazioak eta atzera-egiteak ebazteko eta esleipen-proposamena Agintaritzaren lehendakariari bidaltzeko ardura, hark onar dezan eta Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratzeko agindu dezan.

Erreklamazioak eta atzera-egiteak aurkezteko epea amaitutakoan, ez da halakorik aurkeztu. Horrenbestez, balorazio-batzordeak, martxoaren 18an, behin-behineko proposamena behin betikotzat jo du eta lehendakariari helarazi dio.

Ondorioz, eta lehiaketako balorazio-batzordeak aurkeztutako proposamena ikusita, honako hau

EBAZTEN DUT:

Lehenengoa.– Esleipenaren behin betiko proposamena onartzea eta esleipena argitaratzeko agintzea (eranskina).

Bigarrena.– Lanpostua esleitu zaion izangaia lanpostuaz jabetzeko data ezartzea: 2026ko apirilaren 1a.

Hirugarrena.– Ebazpen honen kontra aukerako berraztertze errekurtsoa aurkeztu ahal izango zaio Datuak Babesteko Euskal Agintaritzaren lehendakariari, ebazpena Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunetik hasita, hilabeteko epean; bestela, zuzenean, administrazioarekiko auzi-errekurtsoa aurkeztu ahal izango da administrazioarekiko auzietarako jurisdikzioan, ebazpena Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunetik hasita, bi hilabeteko epean.

Vitoria-Gasteiz, 2026ko martxoaren 23a.

Datuak Babesteko Euskal Agintaritzaren lehendakaria,
UNAI ABERASTURI GORRIÑO.

2026ko apirilaren 7a, asteartea

ERANSKINA

ESLEITUTAKO LANPOSTUEN ZERRENDA

Datuak Babesteko Euskal Agintaritzako lanpostu batzuk betetzeko lehiaketa, 2025eko urriaren 9ko Ebazpenaren bidez egindako deialdiaren arabera.

Kodea: 007/002. Izena: Informatikako auditore-ikuskatzailea. Lanpostu-mailako osagarriaren maila: 27. HE: 4 / C2. Derrigortasun-data: 2029-12-31.	
Esleipenduna: Perez Garcia de Amezaga, Gregorio	NAN: ***6804**